



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Prentsa zerbitzua

NOBEDADE ASKO EUSKARAGIDAREN IKASTURTE BERRIAN

Zenbait egunetik hona, web orrialdea zazpi hizkuntzetan informazioa eskeintzen du. Eskualdera datozen herritar berriek euskera ikasteko aukera izan dezaten.

Horretaz gain, euskera ikasten jarraitu nahi dutenentzako aukerak ere ematen dira.

Ikasturte berri honetan, Durangoko Amankomunazgoaren euskera zerbitzuak, nobedadeak eskeintzen ditu, bere web orrialdean. Horrela www.euskaragida.com-en euskera ikasteko baliabide guztiak ikus daitezke. Atzerritik datozenentzako aukerak zabaltzen dira, esaterako web orrialdeak zazpi hizkuntzetan ongiatorria ematen zaie: euskeraz, gaztelaniaz, arabieraz, ingelesaz, txineraz, frantsesaz eta errumianeraz. Horretaz gain konkretuki etorkinentzako web-ean dauden baliabidez gain, euskera ikasteko lehen pausoetan aritzeko, Aisa kurtsoa ere eskeintzen zaie.

Gainera beste urte batzuetan bezala, web orrialdeak bere edukinak eguneratu ditu, interesatuek euskera ikasten eta hobetzen jarraitu dezaten.

Bestalde, web orrialdearen berrikuntzetaz informatzeko kartelak eta triptikoak egin dira. Hauek Amankomunazgoan dauden udaletxeetako informazio bulegoetan jaso ahal dira, Berrizko udaletxea barne.